

# ● ● elkartasun fondoa

## MOLDAKETA

**J**akina den bezala, gure ELKARTASUN FONDOA, eztabaida handia tarteko, 2005ean sortu zen, gure afiliatu kideek parte hartzen zuten grebei taldean aurre egiteko tresna gisa. Bitarteko horrekin, sindikatuak afiliatuari oinarritzko diru-sarrerak ematen dizkio greban dagoen bitartean, huelgan parte hartzea erraztuta eta arlo ekonomikoa protesta bertan behera uzteko erabakigarria ez izatea ahalbidetuta.

Baliabide horren balorazioa, orain arte behintzat, positiboa bada ere, lan eremuan eta sistemak egingandako erasoei erantzun soziala emateko ereduetan izandako aldaketak ezin ditugu bistatik galdu. Greba, lehen, erregulartasunez erabiltzen zen tresna bat bazen, egungo lan baldintzek eta testuinguru sozio-politikoak berak, gero eta maiztasun gutxiagoz langileek greba luzeak planteatzea ekarri du.

Beste garai historiko batzuetan baino maiztasun gutxiagoz huelgak egiteak, ez du esan nahi, inolaz ere, langileriak borrokan jarraitzen ez duenik edo aldarrikapenerako estrategia alternatiboak eraikitzen ez dituenik. Azken urteetan, borroka moldeak aldatzen joan direla ikusi dugu eta injustiziak salatzekeo desobediencia zibilarekin lotutako ekintzak garatzen hasi.

Horren aurrean sistema ez da eserita egon, bere erantzun propioak sortu ditu ezagutzen ez zituen edo ohitua ez zegoen ereduentzat. Horren adibide da, zalantzarik gabe, egungo eredu sozio-ekonomikoa zalantzan jartzen duen edozein ekintzaren aurrean, nagusi den legediak eman duen jauzi errepresiboa. Ekintza horien artean sartzen dira, ezbairik gabe, sindikatu honek Ekintza Sindikaltzat jotzen dituen asko.

Borroka moldeetan eman den aldaketa horrek eta grebek, euren eredu klasikoan, izan duten jarduera urriak, ESK-k Elkartasun Fondoaren kontzeptua za-

baltzeko aukera planteatzea ekarri du. Fondo hori borrokarako tresna bat bada, ez litzateke bestelako borroka ereduari ezarri behar eta ez soilik jada daudenei?

Egia da Elkartasun Fondoaren birformulazio berri horrek erronka berriak ekar dakigukeela, baita nolabaiteko zalantzak sortu ere, baina datuak eskutan eta egun borroka moldeak direnetera ikuspegia zabaldu, eztabaida hau gure sindikatuaren ematea garrantzitsua dela uste dugu. Egundauztagun baliabide ekonomikoek, azken urteetan egin diren greben inguruko datuek eta gure sindikatuaren antolaketa ereduak berak, Elkartasun Fondoan aldaketa hori ematea arrisku erabat onargarria dela adierazten digute.

Idea honako hau da: sindikatuko dagokion egituretan eztabaidatutako eta adostutako ekintza sindikaletik eratorrita sindikatuko afiliaturen batek epaitegiko edo administrazioko zigor ekonomikorik jasoko balu, aipatutako isun horren zenbatekoa Elkartasun Fondoak hartuko luke bere gain.

Aldaketa eta aukera hori irekitzeaz gain, V. Biltzarerako proposatzen den beste aldaketa garrantzitsua afiliazio kuotetatik Elkartasun Fondora egiten den ekarpena gutxitzea da.

ARTÍCULO EN CASTELLANO



<https://labur.eus/huX9F>